

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“A-3020 errepidearen 31+600 kilometroan Asparreneko-Donemiliagako industrialdearen sarbideak berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2020ko otsailaren 11an egindako bilkuran, 64/2020 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“A-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbideak berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua” jendaurrean egon bitartean aurkeztutako alegazioei erantzutea. Desjabetzeak eragiten dien ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditua atxikitzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 3ko 295/2019 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “A-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbideak berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektua”, bai eta proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideak banan-banan jasotzen dituen zerrenda zehatza eta hura jendaurrean jartzeko derrigorrezko izapidea betetzea ere.

Proiektua jendaurrean egon den aldian, idatzizko alegazio teknikoak aurkeztu dituzte proposatutako irtenbidearekin eta espedienteko 4/000 finkarekin lotuta, eta Errepide Zerbitzuak aipatutako idazki horien gaineko txostenak egin, eta Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Zuzendaritzak onetsi ditu, eta bere egiten ditu Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileari igorriko zaizkio, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Behin alegazioei erantzunda, behin betiko onetsi behar da proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Zerrenda hori jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioen erantzunak kontuan hartuta egin da, bai eta aintzat hartuta ere eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrendan agertzen den 1/000 eta 2/000 lurzatien doako lagapena, erabilera eta jabari publikoko eremu libreak direnez gero.

Horrez gain, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela eta, ondorioz, presazko okupazioa adierazi behar da. Horiek horrela, Errepide Zerbitzuak jakinarazi du Asparrena-Donemiliagako industrialdera A-3020 errepidetik sartzen dela orain, biribilgune txiki bat duen bidegurutze batetik, eta ez dagoela azelerazio eta dezelerazio erreirik bidegurutze horretatik A-1 autobidera eta A-1 autobidetik bidegurutze horretara sartzeko eta, gainera, errepideak trafiko handia duenez (EBBI>6.000 ibilgailu/egun) eta industrialdera sartzen den ibilgailu astun portzentajea handia denez (ehuneko 40 baino gehiago), bidegurutze horretan gatazkak eta segurtasun arazoak etengabeak dira, industrialdera sartzen diren eta hartatik irteten diren ibilgailuek, bereziki astunek, ezinbestean egin behar izaten dituzten maniobrak direla eta. Hortaz, egungo bidegurutzeak bide segurtasun arazo larriak eragiten ditu eta hainbat istripu izan

dira horren ondorioz. Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbideko bidegurutzea berrantolatzeko eta hobetzeko proiektua onetsi du. Proiektuaren arabera, egungoa baino sarrerako biribilgune askoz handiagoa egingo dute: 30 metroko barruko diametroa izango du eta eraztunaren inguruko galtzada 7,5 metroko zabalerakoa izango da (0,5 metroko barruko bazterbidea, 6,0 metroko galtzada eta 1,0 metroko kanpoko bazterbideak), eta, horri esker, ibilgailu astunek segurtasun handiagoz biratu ahal izango dute. Horrez gain, industrialdearen eta A-1 autobidearen arteko loturen segurtasun areagotzeko, industrialdetik A-1 autobidera irteteko eta A-1 autobidetik industrialdera sartzeko guneeetan abiadura aldatzeko (azeleratzeko eta dezeleratzeko) erreiak egingo dituzte, eta horrela, aldaketa horiek segurtasunez egin ahal izango dituzte gidariak. Proiektuaren helburu nagusia da bide segurtasuna hobetzea bidegurutze horretan eta, aipatutako obrak eginez gero, lortu lortuko da, zalantzarik gabe.

Premiazkotzat jotzeko izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz ere.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa) 7. eta 8. artikuluetan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilu hau da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. A-3020 errepideko 31+600 kilometro puntuan Asparrena-Donemiliagako industrialderako sarbideak berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean egon bitartean aurkeztutako alegazioei erantzutea eta Errepide Zerbitzuak txostenetan adierazi eta proposatutakoaren arabera baietsi edo ezestea alegazio horiek.

Bigarrena. Onestea A-3020 errepidearen 31+600 kilometroan Asparreneko-Donemiliagako industrialdearen sarbideak berrantolatzeko eta hobetzeko eraikuntza proiektuak eragindako ondasun eta eskubideak jasotzen dituen behin betiko zerrenda, zeina honekin batera doan eranskinean jaso baita.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta, horregatik, desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 42.347,37 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako aurrekontuaren 50106.5300.6000002 "Desjabetzeak" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 20.1.20.105-327/000), eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruaren ordainketaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak edo aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako aurrekontua gauzatzeko abenduaren 27ko 24/2019 Foru Arauak 16.a) artikuluan."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Donemiliagako (Erdoñana) Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 20a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*  
**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

Bide Azplegituren eta Mugikortasunaren Saila  
Departamentuaren Unitate Informatiboa  
Viasas y Movilidad

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

A.3.2020 ERERRERAREN 31.4.605 KILOMETROAN, ASPARBENEGU DONEMILAGA INDUSTRIAL DE ALBAI, GARBESAN, GERRANTOLA, TERGO ETA HORBETZEGU ERAKUNTZA, PROSEKUTUA, PROYECTO DE CONSTRUCCION DE RECONSTRUCCION Y MEJORA DE LOS ACCESOS AL POLIGONO INDUSTRIAL DE ASPARBEN-SAN MILLAN, EN EL P.R. 3174600 DE LA CARRETERA A-3020

FINKAREN ZK.	TITULARREN IZENA	KATASTROKO DATUAK			UDALERIA	APROBETAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	FRAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup>		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LIBERTATIA	PARCELA				BEHINBEHETIKOA	ZORTASUNA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	POLIGONO	LIBERTATIA	PARCELA	TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m <sup>2</sup>	SERVIDUMBRE	DIA	HORA
3/000	ALAVA AGENDA DE DESARROLLO S.A.	1	1256		SAN MILLAN / DONEMILAGA	LURZORU URRIANZATU INDUSTRIALA / URRIANZAZO INDUSTRIAL	BEN AFECTADO	49		26/03/20	10:00
4/000	LAJO Y RODRIGUEZ S.A.	1	344		SAN MILLAN / DONEMILAGA	LURZORU URRIANZATU INDUSTRIALA / URRIANZAZO INDUSTRIAL	ITXITUBA / CERRAMIENTO HORMIGO PLATAFORMA / PLATAFORMA DE HORMIGON	440		26/03/20	10:45
5/000	LAJO Y RODRIGUEZ S.A.	2	1973		ASPARBENA	LURZORU URRIANZATU INDUSTRIALA / URRIANZAZO INDUSTRIAL	ITXITUBA CERRAMIENTO	16		26/03/20	10:45

Exp./Expte. 2019/5